

Gorka Menendez Baceta. Sendabelarren transmisioan katebegi



Sendabelarrak ezagutu, bildu eta horiekin ukenduak prestatu. Prozesu osoa bildu du UEUK, berriki Iruñean egindako ikastaroan. Teknikotik bezainbeste izan du orde gogoetatik. Sendabelarrez hitz egiteak, izan ere, herri medikuntzaz eta medikuntza ofizialaz –eta haien arteko talkez– hitz egitera baitarama. Galdera batek biltzen du eztabaidaren muina. Eta hori eraman dute ikastaroaren izenburura.

“Superstizioak badu azalpen zientifikorik”



Ander Perez

@ander_prz

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Etnobotanika, hautu politikoa

“1986an jaio nintzen Galdakaon. Ingurugiro Zientziak ikasi ostean, ikerketa etnobotanikoan murgildu nintzen: okupazio eta autogestio mugimenduaren parte izanik, baserritar gizarte tradizionalak inguruko baliabideekin bizitzaren arlo gehienak asetzeko zuen gaitasunak erakarri ninduen. Hala, sendabelarretan eta basoko landare jan-garrietan oinarrituta osatu nuen doktore tesia. Baserriz baserri adinduekin elkarriketak egitearekin bat, Euskal Herrian zehar ikastaroak ematen hasi nintzen. Orain, kapitalismoak baserri munduan izandako garapena dut ikerketa lerro. Iraultzarako aukerarik ote dago? Zein norabidetan? Espero dut hurrengo bi edo hiru urteetan erantzunak izatea”.

“Zientzia ala superstizioa?”. Horrekin abiatu zenuten UEUKo ikastaroa.

Galdera horrek tranpa du, superstizioa zientzia delako ere bai, plazeboaz ari garenean. Herri medikuntzan badira osagai materialik ez duten erritualak, osagai sinboliko edo magikoak dituztenak, eta horietan, baina baita gaur egungo medikuntza sisteman ere, plazeboa existitzen da. Plazeboa, esanahiez, edukirik ez izan arren eragin bat daukana da. Antropologiak zehaztu du plazebo baten edukia ez dela kimikoa, baizik eta kulturala: esanahia da eragiten duena. Medikuntza batek pilula bat ematerakoan, pilulak gure testuinguru kulturalan duen esanahiak eragin bat du pazientearen testuinguru psikologikoarengan, eta horrek erantzun fisiologiko bat eragiten du. Superstizioak, beraz, badu azalpen zientifikorik. Egia da gaixotasun askorentzat, edo gehienentzat, plazeboak soilik ez duela balio. Baina gaur egungo ospitaletan pailazoak joaten dira umeei txisteak kontatzera. Hori plazeboa da, ez baitu inolako konposizio kimikorik. Kulturala da: pailazo bat ikusteak umea poztzen du.

Sendabelarrek, beraz, bietatik dute, kimikotik eta kulturaletik?

Sendabelarrak farmakoak dira, elementu neutroak. Edozein medikuntza sisteman, dela medikuntza ofiziala, dela herri medikuntza, dela medikuntza txinatarra, landarea elementu neutrala da. Kontua da landare hori nola erabiltzen dugun, bere konposizio kimikoaren arabera, edo bere esanahiaren arabera. Batzuetan alderdi batek dauka garrantzi handiagoa, eta besteetan besteak.

Naturalak dira, inguruan aurki daitezke.

Bai, baina pilula bat ere petrolioarekin egiten da, eta petrolio ere naturatik dator. Landare askok, gainera, hil zaitzakete, janez gero. Beraz, naturala... Niretzat beti dago auzitan natura-gizakia dikotomia, ez du ekarpenik egiten. Tira, ongi dago baten batek gauza naturalekin kontu mistiko edo erlijiosoa badauka, baina bestela, ez du beste inolako ekarpenik.

Gurean, baserri gizartean erabiltzen ziren. Zer testuingurutan?

Nik emandako ikastaroa [XX. mendeko]



20ko eta 40ko hamarkaden artean jaio-tako jendeari egindako elkarrizketetan oinarritu genuen. Ez zen errepiderik, ez elektrizitaterik, ez urik. Medikuek ez ziren etxeetara joaten, ospitalerik ez zegoen, eta dirurik ez zuten merkatuetan erosteko. Baldintza horietan, sendabelarrak garrantzitsuak ziren, ez zegoelako besterik.

Zer geratzen da medikuntza horretatik?

Testuinguru materiala, baita kultural eta soziala ere, guztiz aldatu da, eta beraz, aldatu da gaixotasunak ulertzeko era ere. Zahar askok diotenez, penizilina iritsi zenean utzi zitzaion belar asko erabiltzeari. Askok esango dute hor konspirazio bat dagoela, baina argi dago jendeak funtzionatzen zuelako erabiltzen zuela penizilina. Baina egia da sendabelarren galeran asmo politikoa ere egon dela: estatua bilakatzen denean gizartearen osotasuna kudeatzeko egitura, behar du pertsonen bizitza kontrolpean izan. Hala ere, ezin da ukatu medikuntza modernoak lehen ez zeuden erantzun asko eskaini dizkigula, eta erantzun hobeak.

“Medikuntza ofizialak ez daukana eta herri medikuntzak bai osasunaren autogestioaren perspektiba da”.

Zein zen sendabelarren erabilera?

XX. mende hasieran behintzat, oso larriak ez ziren gauzetarako erabiltzen ziren: liseriketa aparatuarekin lotutako arazoak, azaleko kontuak... Sendabelarrek etxeko botikina osatzen zuten, eta horrek garrantzia du, gaur egun ere balioko ligukeelako: osasun arazo gehienetarako ez gara joaten ospitaletara, baina bai farmazietara, gure inguruan eduki ditzakegun gauza asko erostera: zauri bat osatzeko zerbait, tripako min bat, katarro bat...

Zer ikasi lezake medikuntza ofizialak herri medikuntzarengandik?

Medikuntza ofizialak ere erabiltzen ditu sendabelarrak. Ume nintzenean eukalipto lurruna ematen zidan amak, medikuak aginduta, eta medikuak esan dezake “hartu mantzanilla bat”, edo “hartu aloe vera”, erredura batentzat. Horregatik dira elementu neutralak. Medikun-

tza ofizialak ez daukana eta herri medikuntzak bai osasunaren autogestioaren perspektiba da. Herri medikuntzak bazuen hori, agian besterik ez zelako. Egun, ordea, egitura batzuek ordezkatu dute gizarte osoa eta ez dugu kontrolik gure gorputzetan.

Mesfidantza eta kritika iturri izan ohi dira medikuntza alternatiboak. Zer dela eta?

Esparru zientifiko-akademikoan ari dira pausoak ematen, plazeboaren mekanismoak zeintzuk diren ulertu ahal izateko. Azkenean, zein da plazeboaren arazoa? Funtzionatzen duela. Kontua da, askotan, sasimedikamentu batzuk aldarrikatzen direla, funtzionatzen ote duten jakin gabe. Medikuntza alternatiboetan dagoen arazo handienetako bat da ez dagoela metodologia argirik erremedio batek balio duen edo ez zehazteko. Medikuntza ofizialak hori argi adierazten du, badiu metodologia bat, eta bat etorriko gara edo ez, baina argi dago zerbaitek funtzionatzen duen ala ez. Besteetan ez dago hori, eta hortik mesfidantza. Azkenean, medikuntza sistema batean, garrantzitsua da egia erroan egotea. ■